**Zk-2**

9/2000 LEGEA, azaroaren 10ekoa, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

AZAROAREN 10EKO 9/2000 LEGEA, GIZARTE BAZTERKERIAREN AURKAKO LEGEA ALDATZEKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legeak era honetara definitzen ditu V. kapituluko 28. artikuluaren 1. paragrafoan gizarte-larrialdietarako laguntzak: «Gizarte-larrialdietarako laguntzak laguntza ekonomikoak dira, aldian-aldian emango ez direnak, eta helburua gastu berezi batzuk egiteko behar beste baliabide ez duten pertsona batzuei laguntzea da. Gastu horiek arruntak edo ohiz kanpokoak izango dira, eta beharrezkoak gizarte-bazterkeriarik ez izateko edo bazterkeriaren ondorioak arintzeko».

Gainera, legeak berak definitzen du 28. artikulu bereko 2. paragrafoan gastu horien izaera, eta hala zehazten ditu:

a) ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak.

b) ohiko etxebizitzan edo alojamenduan bizi ahal izateko eta oinarrizko osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak.

c) elkarbizitzako unitate ekonomiko independienteko pertsona baten edo gehiagoren lehen mailako premiek eragindako gastuak, hala nola janztea, hezkuntza eta prestakuntza eta osasun-laguntza jasotzea, eta abar.

d) gorago aipatutako gastu-moduren batengatik lehenagotik zorpetuta egoteagatik sortutako gastuak edo bizitzako oinarrizko beharrizanei erantzuteko beharrezko gastuengatik zorpetuta egoteagatik sortutakoak.

Orokorrean, gizarte-larrialdietarako laguntza modura gehienezko kopuru batzuk jartzen dira, araudiz, legearen 28.2 artikuluan aurreikusitako gastu berezietako bakoitzarentzat. Bestalde, laguntza horiek aurrekontuetan baliabideak izatearen menpe daude.

Egoera hori kontuan izanik, eta ikusirik udalek, herritarrek berek gero eta gehiago bultzatuta, gizarte-larrialdietarako laguntzak areagotzeko sentitzen duten beharrizana, gizarte-larrialdietarako laguntzak sendotzeko legez besteko proposamena aurkeztu zuen Talde Sozialistak bere garaian, eta aho batez onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak 1999ko apirilaren 30ean egindako osoko bilkuran. Hauxe zioen hitzez hitz:

**N°-2**

LEY 9/2000, de 10 de noviembre, para modificar la Ley contra la Exclusión Social.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 9/2000, DE 10 DE NOVIEMBRE, PARA MODIFICAR LA LEY CONTRA LA EXCLUSIÓN SOCIAL.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La ley contra la Exclusión Social define, en su capítulo V –artículo 28, apartado 1–, las ayudas de emergencia social de la siguiente manera: «Las ayudas de emergencia social son prestaciones no periódicas de naturaleza económica y subvencional destinadas a aquellas personas cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social».

Además, la propia ley define en el mismo artículo 28, apartado 2, la naturaleza de estos gastos, especificándolos como:

a) gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda o alojamiento habitual.

b) gastos necesarios para la habitabilidad y el equipamiento básico de la vivienda o alojamiento habitual.

c) gastos relativos a las necesidades primarias de una o más personas de la unidad económica de convivencia independiente, tales como vestido, educación, formación, etc.

d) gastos de endeudamiento previo originados por alguno de los conceptos de gasto señalados con anterioridad o por la realización de gastos necesarios para atender necesidades básicas de la vida.

Con carácter general se establecen reglamentariamente para cada uno de los gastos específicos previstos en el artículo 28.2 de esta ley unas cuantías máximas en concepto de ayudas de emergencia social. Por otro lado, estas ayudas están sujetas a disponibilidad presupuestaria.

Teniendo en cuenta esta realidad, y dada la necesidad sentida desde los Ayuntamientos, por una presión creciente de la propia ciudadanía, de impulsar las ayudas de emergencia social, el Grupo Socialista presentó en su día una proposición no de ley de consolidación de las ayudas de emergencia social, que se aprobó por unanimidad en el Pleno del Parlamento Vasco de 30 de abril de 1999 y que decía textualmente:

«Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio behar adinako hornidura ekonomikoa izenda dezala, gizarte-larrialdietarako laguntzentzako aurrekontu-partidan, legeak jarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek laguntza horiek jasotzeko modua izan dezaten».

Alabaina, beharrizan guztiei estaldura emateko printzipio honetarako oztopo da Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legearen 13. artikuluaren e) idatz-zatia. Hartan zehazten dira Gizarteratzeko Erakunde Arteko Batzordearen eginkizunak, eta foru-aldundiei bitartekari-lana izendatzen zaie laguntzak ematerakoan, aipatutako erakundearen eginkizunetako bat hauxe dela baitio: «Eusko Jaurlaritzak foru-aldundiei eta foru-aldundiek udalei gizarte-larrialdietarako laguntzak finantziatzeko diru-baliabideak nola banatu jakiteko irizpideak aztertzea. Beharrezkoa bada, irizpide horiek berrikusi egingo dira».

Gero, legearen idatz-zati hori aplikatzerakoan, eta irizpide horietan oinarrituta, aurrekontu-izendapen bat zehazten da praktikan lurralde eta udal bakoitzeko, eta foru-aldundiak bitartekari gisa jokatzen du; horrek atzerapenak eragiten ditu laguntzen ordainketan, nahiz eta laguntza horiek, presakoak izanik, askoz ere arinago eta eraginkorrago tramitatu beharko liratekeen. Hori lortzeko, aski litzateke Jaurlaritzak udalei zuzenean ordaintzea, helburuaren arabera zehaztutako gastu-irizpideetan oinarrituta –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren 2000ko martxoaren 22ko Aginduan arauz zehaztuta daude dagoeneko irizpide horiek– eta beharrizan-egoera guztiei erantzuteko adinakoa izan beharko duen aurrekontu-horniduraren bidez, Eusko Legebiltzarrak onetsitako legez besteko proposamena kontuan izanik.

Arrazoi horiengatik, bi urte igaro direlarik Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea onetsi zenetik, ondorengo aldaketa behar du legeak:

Gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketan foru-aldundien bitartekaritza kentzea, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legeak berak erakundeetako bakoitzari izendatzen dizkion aginpideetara egokitzeko. Hain zuzen, legearen 42. artikuluak aginpide hauek izendatzen dizkie udalei:

«Gizarte-larrialdietarako laguntzak ematea onartu eta ukatzea», f) idatz-zatian.

Eta «Gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzea», g) idatz-zatian.

***Artikulu bakarra.***– Gizarte Bazterkeriaren Aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 13. artikuluaren e) idatz-zatia aldatu egin da, eta ondorengo idazkera hau izango du:

«Eusko Jaurlaritzak udalei, banan edo taldeka, gizarte-larrialdietarako laguntzetarako diru-baliabideak banatzeko irizpideak aztertzea, betiere udalek beren fo-

«El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que consigne la dotación económica suficiente, en la partida presupuestaria destinada a las ayudas de emergencia social, para que estas ayudas puedan ser percibidas por todas las personas que cumplan los requisitos de la ley».

No obstante, este principio de dar cobertura al cien por cien de las necesidades se ve dificultado por el apartado e) del artículo 13 de la ley contra la Exclusión Social, en el que, refiriéndose a las funciones de la Comisión Interinstitucional para la Inserción, otorga a las Diputaciones forales un carácter de intermediación en la concesión de ayudas, al señalar que una de las funciones del mencionado organismo es la siguiente: «Analizar los criterios para la distribución del Gobierno Vasco a las Diputaciones forales y de éstas a los Ayuntamientos de los recursos económicos destinados a la financiación de las ayudas de emergencia social, y proponer, en su caso, la revisión de los mismos».

En aplicación posterior de este apartado de la ley, y sobre la base de estos criterios, se determina en la práctica una asignación presupuestaria por territorio y Ayuntamiento, actuando la Diputación foral de intermediaria, lo que viene ocasionando retrasos en el pago de unas prestaciones que, por su carácter urgente, debieran ser tramitadas mucho más ágil y eficazmente. Algo que se conseguiría si fueran abonadas directamente desde el Gobierno a los Ayuntamientos, sobre la base de los criterios de gasto determinados por concepto y que ya se explicitan normativamente en la Orden del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social de 22 de marzo de 2000, a través de la dotación presupuestaria que debe ser suficiente para todos los estados de necesidad, teniendo en cuenta la proposición no de ley aprobada por el Parlamento Vasco.

Por estas razones, transcurridos dos años desde la aprobación de la ley contra la Exclusión Social, se entiende que la misma precisa de la siguiente modificación:

La eliminación de la intermediación de las Diputaciones forales en la gestión de las ayudas de emergencia social, para adaptarse a la definición competencial que la propia ley contra la Exclusión Social establece para cada una de las instituciones. Concretamente, el artículo 42 de la ley establece las siguientes competencias para los Ayuntamientos:

En el apartado f), «Reconocimiento y denegación de las ayudas de emergencia social».

Y en el apartado g), «Realización del pago de las ayudas de emergencia social».

***Artículo único.***– Se modifica el artículo 13, apartado e), de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, que quedará redactado con el siguiente texto:

«Analizar los criterios para la distribución del Gobierno Vasco a los Ayuntamientos, individual o mancomunadamente, de los recursos económicos destinados

ru-aldundiarekin bestelako jardunbide bat adostu ez duten kasuan, eta, beharrezkoa bada, irizpide horien berrikustea proposatzea».

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Maila bereko edo apalagoko arau guztiak indarrik gabe utzi dira, lege honetan xedatutakoarekin bat ez datorren guztian.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko azaroaren 27a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

a las ayudas de emergencia social, salvo que los Ayuntamientos hubieran acordado otro procedimiento diferente con su respectiva Diputación foral, y proponer, en su caso, la revisión de los mismos».

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas las normas de igual o inferior rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en la presente ley.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-3

AGINDUA, 2000ko abenduaren 18koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Teknologiaren Euskal Sarearen barruan dauden teknologia-eragileei dirulaguntzak nola eman arautzen duena.

Apirilaren 30eko 96/1997 Dekretuaren bidez, Teknologiaren Euskal Sarea eratu eta arautu zen, eta horretarako, Euskadiko teknologia ikerketarako erakundeekiko elkarlana eta koordinazioa finkatu zitue eta, era berean, erakunde horien ezaugarriak eta eginkizunak ere zehaztu zituen. Dekretu horretako 5. artikuluan, ikerkuntza orokorreko proiektuak, espezializazio programak edo beste era bateko jarduerak egiteko, erakunde horiei eman ahal zitzaien finantzaketaren oinarrizko jarraibideak ezarri ziren, dekretuan zehazten ez dena arautzeko hura garatzen duten xedapenetara joz.

Abenduaren 26ko 278/2000 Dekretuak, apirilaren 29ko 96/1997 Dekretua aldatzekoak, haren oinarrizko zenbait alderdi aldatu ditu.

Horregatik, bidezko da dekretu hori garatzea Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dagokion finan-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-3

ORDEN de 18 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de subvenciones a los Agentes Tecnológicos integrados en la Red Vasca de Tecnología.

El Decreto 96/1997, de 30 de abril, por el que se constituye y se regula la Red Vasca de Tecnología mediante el establecimiento de relaciones de colaboración y coordinación con las Entidades de Investigación Tecnológica de Euskadi y se determinan las características y funciones de los mismos, estableció en su artículo 5 las líneas básicas de financiación que a las citadas Entidades se les podía conceder para la realización de proyectos de investigación genérica, de programas de especialización y de otro tipo de actuaciones, remitiendo a sus normas de desarrollo para la concreción de aquellos aspectos no regulados por el Decreto.

El Decreto 278/2000, de 26 de diciembre, de modificación del Decreto 96/1997, de 29 de abril, ha variado algunos aspectos fundamentales del mismo.

Por este motivo, resulta procedente desarrollar el citado Decreto en relación a la financiación que corres-